Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko maiatzaren 10a, osteguna — 89 — Jueves, a 10 de mayo de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## URNIETAKO UDALA

*Iragarkia*

Gaia: Urnietako udal barrutiko uraren ziklo osoaren kudeaketa arautzeko udal ordenantzaren aldaketaren behin-betiko onarpena.

Urnietako Udalbatzak, 2017ko abenduaren 21eko ez-ohiko bilkuran, «Urnietako udal barrutiko uraren ziklo osoaren kudeaketa arautzeko udal ordenantzaren» aldaketaren behin-betiko onarpena adostu zuen.

Jendaurreko epea bukatuta ez da iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu (4 zkidun aldizkariko iragarkia, 2018ko urtarrilaren 5ekoa), ondorioz Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 49. artikuluko azken paragrafoan ezarrita dagoenez ordu arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko onartutzat jo behar da.

Akordio honek bide administratiboa agortzen du, beraz, Administrazioarekiko Auzi Eskumenari buruzko, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46 artikuluei jarraiki, ados ez daudeenak bi hilabete ditu errekurtsoa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean. Esandako epea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den dataren hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Aipatu 7/1985 Legearen 70.2. artikuluari jarraiki, ondoren argitaratzen da.

Urnieta, 2018ko maiatzaren 4a.—Mateo Habibi Astigarraga López, idazkaria. (3110)

ERANSKINA

Eduki hau duen 69 bis artikulu berri bat sartzea:

«Saneamendu orokorraren azpiegiturak, zaharkituta geratu delako edo hutsuneak dituelako, hura berritzeko edo ordezkatzeko lanak behar dituen eremuetan, Udalak egun dauden harguneak aldatuko ditu horiek instalazio berrira egokitzeko.

Behin hargune horiek eginda, eta bereziki saneamendu-sarearekin elkartzen diren lekuetan horien estankotasuna ziurtatu ondoren, jabe bakoitzarenak izatera igaroko dira».

## AYUNTAMIENTO DE URNIETA

*Anuncio*

Asunto: Aprobación definitiva de la Modificación de la ordenanza municipal reguladora de la gestión del ciclo integral del agua en el término municipal de Urnieta.

El Ayuntamiento de Urnieta, en sesión extraordinaria celebrada el día 21 de diciembre de 2017, acordó aprobar inicialmente la «Modificación de la ordenanza municipal reguladora de la gestión del ciclo integral del agua en el término municipal de Urnieta».

Transcurrido el plazo de exposición pública (anuncio en boletín n.º 4, de 5 de enero de 2018) no consta que se haya presentado sugerencia ni reclamación alguna, por lo que, de conformidad con lo dispuesto en el último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 reguladora de las bases del régimen local, debe entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial.

Este acuerdo pone fin a la vía administrativa de manera que, conforme a las previsiones de los artículos 25 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa podrá ser impugnado directamente ante la sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de 2 meses. Este plazo se computará desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Conforme a lo dispuesto en el artículo 70.2. de la citada Ley 7/1985, a continuación se procede a su publicación.

Urnieta, a 4 de mayo de 2018.—El secretario, Mateo Habibi Astigarraga López. (3110)

ANEXO

Introducir un nuevo artículo 69 bis del siguiente tenor:

«En aquellos ámbitos en los que la infraestructura de saneamiento general, por haber quedado obsoleta o presentar deficiencias, requiera la realización de obras para su reforma o sustitución, el Ayuntamiento modificará las acometidas existentes para adecuarlas a la nueva instalación.

Una vez ejecutadas estas acometidas, y asegurada su estanqueidad en especial en su entronque con la red de saneamiento, pasarán a ser propiedad de cada propietario».

EK\CV GAO-I-2018-03110